

ENBEITA'tar KEPA

Nayak ba uan gili. Ta, joan dan mayatzaren lenengoz, Zornotza'tik Areatza'ra niñoyan ni, ba u-erakarpen zoraga iak eraginda. Eleiz-ondoan itxi neban ta anta; zerbait atzeraturik, ezker-alderantza, muna-egalez zearka doan bide-zido ari ekin neutsan, gogotsu.

Gorakoan, au ez-au e neukan Etxalai zo otza; bizkar geratzen ziran, oster, beeko bitxabal, base i pinpirin, gari-solo orlei, e eka marmarti, lerdoi baltzak... Txori abeslariak, txindor eta kardantxilo, amilotx eta txonta, ugari neukazan ezker-eskuma, txo o-txio bigunez. Ondo eto ia ete emosten? Beñola gure Oleskariari sari emon izango eutsoenen ondo-rengoak ziran, aurki. Begi-zo otz eta gogo-urduri, oldozkun bizizko lu unean bipil, ba-niñoyan sagastian gora.

Eta, azkenez, or au ez-au e Usparitxa, base i txairo lerdena. Mila zugatz daukoz inguruan, sagar, madari, intxaur, ereñotz, kerexa, okaran, mizpila ta u etx... Eskumatik, ur-ur, Ixidor deunaren baseliza, Ta erdian, bake-zorion murgil, gure Enbeita zanaren sorlekua. Adeitsu ta gurbera, kapela erasten dot, atarira eldukeran.

Nagi barik, dei dagit atean, ate zabal gornutaz josian. Andra zartxo bat, iloba zapietan daukala, agertu yat atean. Ezaguna dot lendik be: Goiria'tar Bedite dozu, Kepa zanaren alarguna. Larogeta lau urte egiñak dabezan a en, mardul ta txairo dabil ondiño. Beingoan ba uratu nau; ta, lenengo agur ondoren, sagardo-bonbil ori-go i bikaña atera daust. Onen gozotasun eztiz bideko ega ia moteldu ala, min-maratilari ekin dautsogu.

Izketaldi ontan, zenbat oroitzapen gozo jaulki dabezan! Bere senar zana sa ienik dakar gogora. Ta ni, egin-egiñean, aren ba i ta bizitz-xetasun bila joana naz euskal-supazter atara. Nik itaun ta arek erantzun, ia ordu bete iga i bank joan yaku. Gero datoz kanpotik ziran here some ta e ena. Irurai azaltzen dautsiet daroyadan asmua: aita zanaren bizitz-zertzelada batzuk inguratu. Karakas'tik artu dot Euzkadi'ko Ufexkindo-aren bertso-lanak batu ta liburu bat egiteko agindua.

Eta nik ezin, ezelan be, agindu-eskabide oneri uko egin. Lendik be ortan ibilia nozu, gure oleskari gorenengoaren lan gustiak batu ta alkar-turik bilduma ede a egiten. Eta ortin dot ortarako aukera berebizikoa. Asmu o egaz eroan neutsoen Enbeita ai olango itaun-e eskada, eurak astiz aren egite, bertso-sayo, ateraldi, izkirimiri, ipuin ta abar gogorazo

koa emon eta, biotza dardar, ara ta ona begira, aldendu nintzan andik. Inguruko gauzak neure bafenean josiak gura nebazan, ixil-ordu gurenetan auznartzeko nunbait. Gorakoan txio-txio ziarduen txindor ta lagunak, ondiño be, kanta-kantari... Ipar bizkofak kulunkaz, gari-sail] muskefak makurtuz...

Keparen jatorri-zugatz

Kepa gaztea, Urretxindorraren birloba, langille zolia dogu. Arañegun etxera yatan, nik bere lepo itxiriko zeregiña bizkor ta bete-betean egiñik. Bai 'aintzagafi olango gazteak! Onexek dira gure efiak eta, batez be, gure euskera zafak bear dabezan gazte langile asmotsuak.

—Kaixo, Kepa! Zetan az? Zelan daukak nik agindutakoa?


—Amaira dot. Ara jo ta emen galde, ibilli naz aspaldi; baña azkenez be egin dot zuk gura dozuna.

—Noz ta nun jayoa dogu, ba, zure aitita ona?

—Nun jayoa, ba-dakizu; Usparitxa-Jauregi'n, neure aita lez: onela deritxo arein sorlekuari. Areatza-Muxika efián, Bingen Deunaren eleizako Bateo-liburuan agiri danez, 1878'gko. irailaren 8'an bateatu eban Leon Miangolafa txauburu-Iagunak; bada-ezpadan, alan be. Aufeko egunean, gabeko bederatzietan jayo zan, ba, ta eriotz-afiskuz etxean bertan ugutzatu. Eta izena, Kepa (Pedro) ezafi eutsoen. Bere gurasoak Enbeita'tar Juan Antonio ta Efenteria'tar Maria, biak ziran muxikafak eta lugiñak.

Juan Antonio onek ba-eban bere ezizena: *Txotxojeuri* (Jauregi'ko Txotxo?). Eta gora andikoa ei genduan Muxika aldean, gazte-gaztetatik. Ogeita bost urteko zala, bigafenez ezkondu zan 1872'gko Dagonillaren 3G'an; eta bigafen ezkontza onetakoa da gure Kepa Enbeita. Lenengo ezkontzako Txotxojeuri'n emaztea Maria Paz Gomeza izan ei zan.

Etzan arlote ta ixilla gure Txotxojeuri. Sari, apurtxu bat goyak zurbilduta, etxera bidean bafitsu ta alai. Etxeratzean, jakiña, tayu ofetan ibil ezkeru, andriak miña-zoli ari eztenka; baña gizonak baekian andriaren sumin-ukalditik zelán sayestu. Etxeko atarira, otzaragiñen aufera eldualan, efosarioa asten ei eban altutik: "Kurutze santuaren. . ." Andria, bafiz, etxe-zokondoan asiko zan: "Ointxe eldu da gure guzur-zulo. . ." Baña Txotxojeuri'k ondiño indartsuago: 'Gloria Patri et Filio...', ta andriak be ixilk errezaú bear. Azkenerarte itxaingo eutson, asafe egi-teko. Ortarako be, baña, ba-eban gure gizonak nundik txifist egin; Kre-



Jaiotetxea



Senar-emasteak

dua esatean maladi-gora asr oi zan, balbea exkilara buruan amaitu ta azkeneko Aitiaren egin orduko, oyan eguan.

Txotxojeuri lugiña zan, etxaldea ganoraz eruaten ekiana. Baña —garai atan otzaragintzak irabazi politak ekarzan— naizta berak otzararik egin ez, gizon bat aukeratu eban ortarako be. Muxika aldean olango asko ziran, diñoenez; baserriko lanak eta otzaragintzak ekartsoenaz eroso bizi ei ziran. Ganera, Txotxojeuri, tratuak egin eta otzarak saldutea eder yakolako, Muxika'ko otzaragille gustien otzarak burdian artu ta Somorrostro aldera juaten ei zan. Bein, bere seme Andolin bialdu eban ara, idiakaz otzarak ematera. Ta ona, onek zer ikusi eban: idiak taberna gustien afean gelditu egiten zirala. Ori zan, antza, Txotxojeuri'n oitura, ta idiak ba-ekien an geldiunea zala.

Bigafen ezkontzako seme-alabak ouexek ebazan; Antolin, 25 urtetan il zana; Gergoria, orain bost-sei urte illa; Kepa, gure Ufexindofa, 63 urtegaz 1942'an illa; Frantziska, emakume eder ta galanta, 17 urtetan il zana; Manuel (Imanol, Uribitarte'tar Ibon, Garbi-nai.. .) 62 urtegaz Gernika'n illa: aren emaztea bizi da ondiño; Liandro, iru illabetegaz aingeru ila; ta Santiago, anairik gaztiena ta ondiño 71 urtedun Bilbao'n bizi dana.

Bertsolari zan, eta ez kaskafenetakoa, ugari ta piperminduna baño. Bere bertsoetatik ezta askorik gordeten, eta oneik be buruz dagozanak bakafik. Gordinxka be ei zan, eta ezta afitzekoa, orduko bertsolariak ia danak trabena-bertsolariak eta gordiñak baitziran, safi azaostoak baizen musker. Lengo batean, Deba'n, Tene'k esan eustana: "Ni gazte nintzala bertsolari guztiak oso lakatzak ziran; gerora, gure Enbeita andiak jaso ta duindu zun bertsolaritza." Izan be, Kepa'k eztau bat be, bertso bat bera be, loikeri edo basa-sunda darionik.

Ibafuri aldean ei egoan Txankan esaten eutsen basefitar etxagun bat. Bertsolaria au be ta abade ikasten ibillia, ta bertsolariak neurtzea atsegin yakona. Bein Txotxojeuri be neurtu nairik, bertso bat jaurtzeko esan ei eutson zigafo-puru-truke. Ta Txotxo'k, gustiz jasezko, onela ziri:

Kaparra
Lengo batian billatu nuan
Dama gaste bat basuan;
Gonia zeukan pizkat altzeuta,
zeukon zankuan. . .
Au kenduteko zaldun gaste bat
larita zeukon albuán.

Dama gastiak eukan tenplantza
Ta bestiak esperantza;
Gonia zeukan puskat bustita,
Jarrita bertan egonda:
Au ziketzeko aize pizka bat
Arentzat komenitzen da.

Olan abestu eutson, antza, aurreragoko egun baten Txankan ikusi ebalako neska gaste bategaz, bakar samafean.

Azkenez, Txotxojeuri'z amaitzeko, ona arako au. Lenengoz ezkondu zanian, eleizatik urtekeran, andria etxera bialdu ta bera, lagunakaz, pe-lota jokaldia egitera juan ei zan.

Buruz jazteko ikasi

Etmetik eskolara, bost miñutu naikua ebazan Kepa'k; aldatz-beera ta aldatz-gora, bide-zidofez, joan-etofi laburtxua. Ez ebillen nagi. Biotz-zabal ta maitekor zalako, eskola-lagun mordotxoa eukan, Areatza'ko ume-irakastolan.

—Emen ikasi eban, beraz. . .

—Ez. Jon maixuak lau illabetez irakatsi eban emen. Eta gero, askori lez, Ameriketarako gogua sortu; orduan ta gaur be bai, entzutez beintzat, era egokia dirua egiteko, ta onek bafua ozkatua ara juan zan Jon maixua. Ta Areatza eskola barik geratu zan. Jon maixua ona zan, maitasunez erakutsi ta arte andia ebana; aren begirakun gozopean, gure basefitar neska-mutikuak polito ikasten eben. Zigor gitxi, ekin ta ekin, euzkeraz, jakiña. . . Gero, etzan zati batean eskolarik egon Areatza'n. Muxika'raño juan biar gure neska-mutikuak. Kepa, baña, zazpi urteko, gastetxuegia zan ondiño ara juateko. Ta urte bian etzan eskolara eldu. Or ibili zan, ikasi eban apufa aztu ta solo ta mota zear jostari: ez eban txoririk itxi afikatu barik, ez inguruetako zugatzik ganera igon barik.

Eta egun batean aitag esautson:

—Biar, Muxika'ko eskolara juango az; amak lagunduko au.

—Ederto —erantzun eban gure txikiak, ia amar urtegaz zeozer egiteko guran egoan-eta.

—Eta ara juan zohan?

—Bai, ta pozik juan be. Baña lenengo egunetan ez eban tautik be aitu. Gayak gatx? Maixuak efua? Ez. Argi ta garbi, ez eban ezer ulertzen; itzen batzuk ba-ekizan erderaz, baña ezer gitxi; ta maixuak erderaz azaltzen ebazan euren ikaskayak: euzkeraz egitea galazota eukon. Eta lenengotan pozafen eskolaratu zan gatzetxoa, gero gustiz goibel ta zalebakotua geratu zan. Baita orduan modan zan erestuna be sarri eruan biar izan eban. Bein diñoenez, eleizako tellatu ganera bota eban zorioneko erestuna, ta maixuak ederto zigortu.

—Luzaro egon zan bertan?

—Ezta, ille bi geyenez. Sebastian Afien Areatza'ko txauburu zanak, bidetxabalez bestaldetik, efota ondoan, ikastetxea zabaldu eban. Eta araxe asi ziran inguruko neska-mutiko gustiak. Irakurten, idazten, Kris-

tau-ikasbidea ta Matematikak egoJaro erakusten erakusten irakasle ban onek. Iru-lau urtean, ementxe ikasi eban gure Enbeita gazteak bizitza gustirako ainbat iagundu eutson eskolea.

Lenengo bertso-sayoak

—Txikitatik ei ekaren bertso-zaletasuna, eztok alan?

—Bai, batez be bertso-paperak erosten umetatik asi zan. Gemika'n, dakizunez, urteko astelen gustietan jai andia egin oi da. Ori dala-ta, emen ingurukuok astean jai bi doguz, domekea ta astelena. Astelen geyenetan ara juan oi ziran, gaur lez, gure Enbeitarrak; Kepa be bai, txikia izanagaitik, sari aratzen zan, gurasoakaz batean. Eta mutil koskofari geyen eder yakozanak pelota-jokua ta bertso-paperak ziran; olango paper-ingiren batzuk beti ekazan etxera. Bein, diñoenez, Gevnika'ra joyala —oñez juaten zan orduan—, bertso-papel saltzale bat aurkitu eban bidean, eta beingoan alako paper bat erosi eutson txakur andian. Etxerantzean be, an ebillen paper-saltzallea oni ta ari paper-eskinka. Ta Kepa'k, besteko barik, buruz bota eutsozan goizean erositako paperak ek'azan gustiak; nai leukazala geyago be, baña txanponik ez sakelean. Saltzalleak orduan, aren bertso-zaletasunaz afi ta zur, dubarik emon ei eutson beste paper bafi bat. Garai atan eskekuak, kitanuak, ijituak eta gañontzekoak etorten ei ziran olango kanta-paperakaz; eta gure Kepa amari arexek erosteko diru-eske beti. Aren bertso-gosea! Bertso-paper pillo itzela ei eukan etxean. Eta gaztetatik ei ekafen berak be olakoxe paperak argitara emoteko griña.

—Orduan ba-zan bertso giroa Usparitxa aldian?

—Iduritu daikegun baño andiago, nunbait. Bertso-paper ofeik, geyenetan, zortzi ahapaldikoak ziran. Eta Kepa-k buruz ekizan. Soluan itaufen, edo bei-zañen, edo otzaragiñen ziarduen bitartean, zenbat onako ikasi eban! Gero abestu. Ta zelako abotsezl Arein durundi edefa! Ta Kepa'k kantari ekiten, lan bitartean; txoriai begira, ipar-aixiaren intziriz, beti abeslari gozo ta bulartsu, azoka-egunetan Gernika'n saltzen ziran paperetatik ikasitako euzkel-bertso txanbeliñak. . . Egia, bere aita, ikusi dogunez, etzan bertsolari makala; ta bere anai zafago Antolin be, gaztetan beintzat, berau baño bertsolari joriagoa ei zan. Onek esanda jakin eban Kepa'k ba-zala Zugaztieta'n gizon giputz bat bertsotan asko ekiana; bera be iñoiz izan ei zan aregaz sayotan, baña bera baño geyago izan.

—Ez al dakizu giputz au nor zanik?

—Bai. Zugaztietan lanean ebiltzan bertsolari ofeik, anai bi ziran: Jose Joakin eta Juan Jose, oñatifikak. Biak mutil galant eta zintzoak; eta Zugaztieta'n bertan ostatus geratu arte, gero Kepa Enbeita beraren emazte

Tzango zan Manasikafai, txeean egiten lo ta jan. Gure Kepa ta muti bardingoak al eben gustietan juan oi ziran arei bertsotan entzutera. Eta eurak, oñatiar ana biak, biziro ta jasas egiten ei eben alkaren artean.

Beste domeka arratsalde baten, zarata ta barbail ugari zan Muxika'rako ; bide ondoko etxe-bafuan. Zer ete? Oiz-oñean dagon Maguna'tik etofia zan Zugadi'tar Erraimun, bertsolari izen andikoa. Bertsoketan jardunik, goretsi ta txalotu eban bere sortefia, bere solo, mendi, efeka, baso ta zelai; bai ta muxikafai, gustiz piperminsu, eztenkada politak sakatu be. Kepa'rentzat zelako abagune! Muxikafen izenean erantzuten dautso, ta ez dau txarto egin. Basefitar entzuleak gogoz txalotu dabe, bai ta Zugadi'gaz beragaz kidetu be. Onek asko be asko bizkortu ta adorez jantzi ", eban gure mutikoa; eta, auferantzean, soloan, otzaragintzan, basefilanetan, aren ames bakafa bertsogintza zan.

—Ba al dakizu zein eta nun izan zan bera lenengoz aurkeztu zan nor-geyagoka?

—Durango'ko jayetari izan zan ori, Kepa'k 19 urte eukazalarik. Befiz'en ba-zan, orduan, olako ospe ta entzute andi samafa eban Onbe bertsolaria; onegaz ta izan zan Kepa'ren len-sayoa. Maikoak Onbe'ri emon eutsoen lenengo saria; baña epaikariak Kepa'ri be, zelanbait bere balioa sariztu nairik, bigafen saria eskura eutsoen.

—Eta gero?

—Kepa'k ogeita bost urte eukozala, itxas-egaleko Santurtze ta Algorta bitartean, Ondafeta'n, bertsolari-sariketa antolatu zan; ain zuzen, lendik be adiskide eban Zelaya zan eratzalea. Gipuzkoafak ziran etorteko, Txifita tartean zala; eta, ziñuenez, afosko samar etozan: Bizkaitik iñok bae-ban arpegifik ara urteteko, Jaster itxiko eban ring'etik kanpo. Zelaya'k Kepa'ri: "Ezagutzen al dok Txifita?" "Ez, ba; entzutez bez." "Orduan ez adi agertu; emen dituk Txifita ta gipuzkoar onenak eta, eurak diñuenez, bizkaitafa mutu geldituko ei dok irugafen bertsorako." "Bai, neure ustez be onenak dozak; baña mntu izte ori lartxu esatea dala deritzat." "Zer, orduan?" "Begira; nik beti nai ixan yoat neu baño geyago diranakaz neure indarrak neurtzea. Ikusi egingo yoagu."

-Ta?

—Zazpi gipuzkoar ziran eta bizkaitar bat. Muxika'koak, asi aufetik, oitura eban lez, iru *Agur Maria* esan ebazan buruz. Ekin eutsoen, bai batzuk bai bestetzuk. Zazpiren artean ondo arakatu ta astindu eban bizkaitar bertsolari gaztea. An zan Aizarna zirilariak, batez. be, gai aldrebek bat jafi gura izan eutson; seme bat eukon onek urte ta erdira eltzen etzana, ta Aizarna'k —bere semiantzat *nobiya* bear dauJa-ta— bertso batzuk eskatzen dautsoz. Kepa'k onela:

Zenbat persona dauzan
Ainbeste jeniño,

Aundi dok ofaño:
Semiantzat nobiya
Bear daula diño;
Urte beta ta (y) erdi
Ez ei dauz ondiño . . .
Sopak oba leukezak
Nobiyia baño.

Eta, txalo-zarta etenbagako ostean, bizkaitar gazteari, bertsolari naiz ostantzeko, txapelak erantsi beafean aurkitu ziran. Ekiñaldia amaituta-koan, mai-epaikariak erabagi au emon eben: lenengo saria, Enbeita'tar Kepa'ri; bigafena, Manu Lujanbio (Txifita) gipuzkoafari. An zan Kiri-kiño, ta adeitsu baizen itz beroz zoriondu eban Kepa, ango gustien txalo-euripean. Ane deunaren jayak ziran; eta antxe bertan itz emonda geratu zan andik bost egunera Bilbao'n, Iñaki Deunez, beste sayoketa, ekiñaldi bat egiteko. Enbeita'ren garaitza barria. Euzko-Gastedi'ko abertzale kementsuak ementxe aupatu ta iragar-azo eben Euzkadi'ko Ufexindor bezela. Era onetan asi ia birbiztu zan bere bertsolaritza.

—Ez ete eutson iñok lagundu, edo ezer erakutsi?

—Arrospide'tar Jon, Muxika'ko osalari ernea, gustiz adiskide eban gazetatik, eta onek —abertzale ta euzkeltzale jatofa bait-zan— erakutsi eutson zelan bertsoak tayutu ta biribildu, zelan ardangela ta gordinkeriak itxirik, bertsoak gizonkiro ta euzkel-jasez osotu bear ziran. Berak autor-tzen dauku gerago: "Arrospide'tar Jon, gure osalari ta jeltzale aundiari, Sabin gure irakasle bardin-bagiaren lagun maite zanari eta jafaitzale zintzoa danari. . . zor dautsot (Goikoa'z ufengo) ni Jel'entzako oleskarija ixtatia." Nik gastetxutatik neukan zaletasun andija oJeskigiñen ekiteko; eta, nainoz ta naiñun, beti gertu egoten nintzan onetarako. Trabernarik trabena erabilten nenduen; baña nik erabilten neban euzkerea. . . etzan euzkerea. Eta berbetia be, safitan, edefegia ez. Afospide mutil gaste bikaña gure efira osalari etofi zan; au nigaz aizkide egin zan, eta neu beragaz bardin. Afo'spide abertzale andija zan, baña ni. . . edozer. Euzkelerri maitia bai, baña nekijan zer zan abertzale ixtatia; ta gure abefi bakafa, Euzkadi zanik bez. Arrospide'k, baña, polito-polito esan eustan gure abefija zein zarr, gu len zer giñan, gaur zer garan; zer ixateko eskubidia geukan; Sabin nor zan, zelakua zan, zelako asmoak eukazan; eusko-oleskarijak antziña-antziña zelakuak ixan ziran, orduan zer egiten eben; geruago oleskarijak oitura onak galdu ebezala, aberri-oleskari ixate-tik "trabena-oleskari" ixatera biurturik, eta abar." Afospide onegaz asi zan mitiñetara urtetan. Eta lenengo Bermeo'ra: mitin zaratatsua egin zan emen. Izlariak, beste batzuen artean, Jon ta Kepa. Jon'en itzaldi-gaya: "Jaungoikua eta Lagi-zafa." Onek biotz-zafasta itzela nabari-azo eutsan Kepa'ri. Maisu ta bertsolari, biak alkafi zorionka etxeratu ei ziran.

—Gerorantza, amabost-ogei bat urtian, Kepa ixan zan mitin gustietan,

aberri-azia Euzkelerrri osuan ereiten ibili zana; edozein efitako abertzale-batzar, batzoki-edegite, efi-jai, jelkide naiz mendigoxale, naiz emakumeen zerbaite zanean, beti aratzen zan Enbeita, bere zentzun eta jasa jai gustiai ezafi ta emonik. Kepa'ren lenengo laguna, olango arazoetan, Azpiri gipuzkoafa izan zan; geroago, Lafabeiti'tar Eustaki (Eulia), Erauskin, Betolaza begoñafa, Alkain, Tolosa, Enbeita'tar Imanol, Uriarte dimostafa ta "Kurloya"... Labur: muxikar Ufexindofak euzkotar batzaldi ta jai gustietan ipiñi eban bere aletxua, batez be Sukafieta'n, Gazteiz'en, Durango'n, Markiña'n, Bilbao'n, Gernika'n, Donosti'n, Tolosa'n, Bergara'n, Elizondo'n, Irurtzun'en, Iruña'n. . . Aberri-egunez bai bero txinpartatsua aren aotiko itza!

—Bein Ixaka Lopez-Mendizabal ta beste adiskide batzuk Donosti'ra eruan eben ango txapelketa bat ikusteko asmuz, ta palkoetan jafi. Orduan Txifita atera ei zan txapeldun. Bizkai'ko bertsolari bat egoala entzuleen artean oneri esan eutsoen, eta arexeri bertso bat bota biar leuskiola. Bafiro antzokiratu ta Txifita'k olango enbidotxoa egin ei eutson, bertsoaren bat pozik entzuugo eukiela-ta. Bai ta Kepa laster zutundu ta bertsoetan asi! Efi-maitasuna, euzkera-zaletasuna ta abar. . . aldezen ta goratzen asi zan. Eta jente gustia, atzera begira, aren ezpanetatik dindil ta txaloka, zoratu arte. . . Txifita'k azkenez:

Bizkai'tik etor zaigun aldetik
Txori aundian aufean,
Ni txepetx naiz-ta, erretiratzen
Noa emendik, lotsean.

Enbeita gizona

Gorago aitatua dogun Antolin, Kepa'ren anaya, mutil dantzari ta jolaslari ei zan; Ibañuri'n ei eukon emaztegeya be. Bein, baña, Gorozika'ko mixiñoetara juanik, gogozko gauzakaz arduratzen asi ei zan. Etxeko arasa zar baten idorotako liburu bat irakufiaz, batez be, bide oneratu ei yakun. Geroztik itxi ei ebazan dantza ta jolasak, eta artzanak bein baño geyagotan ikusi ei eben basoetako aitz-zuloetan, belauniko ta esku-zabal, ordu Juzietan otoika. 1898'gko uralleko Santa Krutze ufengo igandez Muxika'ko Astelafe'n aufesku egin eban. Jentiax txalo, ta berak onela: "Bai, auxe izango da nire azkenengo aufeskua." Ufengo astartean, bazkal ondoren ogera juan eta ordu gitxiren buruan gorpu zan.

Usparitxa'kuak, solo-landetan biar eginda bizi afen, beste ogibide bat be ba-eben berarizkoa: otzaragintza, esan dogunez. Aldikada atan ekan-du ei zan, ganera, Gueñes ta Truzios aldera, otzarak egin eta bide batez erderaz ikastera juatea. Sei bat illabeterako edo juaten ei ziran. Kepa be andik izan zan; eta ango egonaldi ostean, beste tayu bateko jentiaz alkartu

kontuz ibilteko. . . Gogortxu artu eban, ufean; gure Kepa, beñik-bein, antxe zuzendu ta gero bizltza gustian jafaitu eban aren esanera, zintzo ta euzkeldun fededun. Enbeitar anai danak izan dira alkafi entzutekoak.

—Noiz ezkondu zan Kepa?

—Ogeita lau urtetan ebillela. Ibofi'n ezkongeya, Maria Iñasia Benita Goiria ta Inunziaga, neska on galanta. 1903'gko otsallaren 21'an, Luziano Uribastefa'k bedeinkatu ebazan ango Andra Maria'ren Jasokunde eleizan, Mañasi'k 23 urte ebazala. Mañasi au Usparitxa'n bizi da ondiño, gordin baizen txeratsu. Ta, berak diñoslucnez, aznabi-amairu urtetik be ezagun ei eban Kepa, Zugaztieta'ra juan oi zanean ikusita. Bein Mañasi bera Inunziaga basefira ta Kepa Txakilla'ra juan ei ziran komidau. Basefi biok auzo dira, ta jokuan ta abar naikoa ondo alkar ezagutu eben; ta afezkeru, beti izan ei eutson Kepa'k olako txera ta joera berarizkoa. Mañasi'ren etxequak, konturatu ziranean, iñundik iñora be ez eutsoen aregaz ibilten itxi gura. Iru bat urte egin ebezan senar-emaztegai lez, urtean lau bat aldiz alkar ikusirik, eta eurentan bildurrak jota. Etxequak ez eben nai, ba, alako gizon zarangin txiroaz euren alabea ezkontzerik. Ordukoak dira Kepa'ren neurtitz oneik:

Ikusirik lora bat, ez emetik urin,
Neure poz-atsegiña Goiko-Etxebarri'n,
Nik bera eskuratu eztagidan egin
Batek baño geyagok ein dabe alegin;
Baña zirkin andirik eztautsie eragin.

Azkenik, eragozpen eta zoztor danak zapaldurik, ezkondu ziran gazte biak. Mañasi'ren nebak, batez be, ez eben au begi onez ikusi. Bost neba-afebetan bera zan gaztiena ta afeba bakafa. Tamalez gure basefi-tafen artean askotxotan jazo oi dana: onako zerbait dala-ta iñoiz asafatu ezkeru, urtietan gero zear-begi.

Ezkongei ziran artean —Mañasi'k diño—, bertso mordoak egin oi eutsozan Kepa'k; idazki gustiak be bertsoz beterik. Berak, baña, irakufi ta efe egiten ebazan, neben bildurrez. Ez eutsozan, ganera, bidaiz bialtzen, eskuz-esku baño. Alako bat berak dirausku buruz artua;

Kamiñotik urrian,
Txito aldatzien,
Dakit bixi zarena
Basefi etxien.

Ze borondate dagon
Zure biotzien
Jakitera ba-nator
Domeka iluntzien.

Ezkondu. Ibarurin egin ziran. Bazkaria be bertan. Kanpotik ziran nebak etziran juan, eta etxeuak be buru-makur... Kepa'ren aldetik berrogeta zortzi bat lagun ziran guztira. Aparia Uspitxa-Jauregi'n, aspal-ditik gertaturiko abi epelean, ospatu eben alai ta biotz-bero.

Etxeko bahe gozuan

Gure lurralde lillurakor ontako basetxerik geyenak, muño egaletan eta zelai zabal ertzetan jasota dagoz, uso zurien abi antzera. Usparitxa be olantxe daukagu, Etxalai azpian, zelai-mota ta solo-landaz ingurumari esitua; eundaka zugatz ostrotsu artian egoki apatz.

—Iñoiz entzun yoat Kepa, basefian bizita be, etzala basefitar bizitz-zalia. Egia ete dok?

—Ez dot uste. Beste batzuk itandu daustie bostetan, ia gure bertso-lariak solo-lanik egiten eban. Ni bayetzian nago. Usparitxa-Jauregi etzan, Kepa ezkondu zanean, gaur lako etxalde eder apaña; gaur solo mamor diranak, orduan baso ta beresi ziran geyenak: lur etze-igar ofeik berak solo emokor biurtu ebazan. Solo-lanetan, beraz, ez dauko zer kendurik. Zugatz-zalia zan gogotik; ainbat sagar-ondo mardul egoan Usparitxa'n, gaur zaartu dirauak; arduraz zaintzen ebazan. Oraintxe be ba-da an inguruan igali-zugatz naikua, mota guztietatik: asko ta asko berak jafiak. Olakoren bati azala ufatu edo adafen bat auste, berari arpegian zaplada bat emotea lez yakon. Efotsu maite eban izadia, bere olerldetatik dakusgunez.

Orduan, ots, Kepa'ren garayan, gaztañadi edefak be ba-ziran ango baztefetan, gaur Jufalde geyen areitan piñua sartuta dagoan afen. Udaz-keneruntz, an aurkitzen zan bein, gaztaña-enborrean patxadaz jafita, bere anai Ibon'ek Ameriketatik bertsoz idatzi eutson idazkia irakufi ta berak be bertsoz erantzuten. Mañasi, an ufean, Kepa'k erasten ez eutsozan gaztañak mormoxean batzen. Andrearen odol bizi ta arteak artu-eziñari jaramonik egiteke, aurrera erraitson esku arteko bertso albaindu bakoari;

Atzo arratsaldia
Eta gaurko goiza,
Gaztañak eratsiten
Nabil blisti-blasta.
Andriak batu ala
Erastia kosta.

Eta Mañasi'k, ixetu-samar, albotik:

Olango biargiña
Ezetako ezta.

—Ni beti txunditu nauana auxe; basefian lanik asko da urte barruan; alan be, zelan burutzen ebazan Enbeita'k bere olerki-lanak? Nundik ortarako astia?

—Aritzekua da, izan be. Ainbesteko biafa naiz solo ta lur-ufatzean, naiz mendian azpigafi ta abafetan; bai ta zarangiñan be. Eta gero bertsoari lotua, aspertu barik. . . Gurean izan dira geyago be olanguak; Otxandio'n Afese-Beitia, baitik bat; eguneroko ogibideari egokiozan arazoak albora itxi barik, neurtitz jori asko ondu ebazan tarteka maiteka. Gure Kepa'k, astero lez, idazten eban olerkixen bat eta *Tbaizabal*, *Gaoeta del Norte*, *Abeñ*, *EuzkacU*, *Euzkel-laguntza*, *Euzkerea*, *Karmengo Argia*, *Jaungoiko-Zale*, *Ekin*, *Argia*, *Napartarra* ta gañerako aldizkingietan argitara emon. Beñik-bein aldizkari guzti oneitan agertzen dira bere olerkiak.

—Bere izenez izenpetzen ebazan beti?

—Geyenez, bai; baña pitean bein erabili ebazan ordezeko oneik be; *Txindom*, *Karatx*, *Pelo*, ta *Pelo Mari*.

—Eta saririk irabazi ete eban iñoiz?

—Bai orixel Eta ez gitxi be, olango basefitar batek irabazteko. i914'gafena zan. Buenos Aires'ko jolastoki *Nekoetxea* bazkunak euzkel olerki-batzaldia eratu eban. Imanol Enbeita, Efenderi Aba buruñurduna ta abar sariztuak izan ziran; baña Kepa'rentzat "Euzkadi" saria, lenengo saria. Etxean daukie ondiño be onek orduan irabazitako ufezko domiña galanta, alde batetik onela diñoana: "Euzkadi, Jaungoikoa eta Lege Zafa. Zazpirak bat". Andik laster, Baztan aldean uyol ikaragafia izan zan; orduan be, gertakari oferi buruz borobildutako olerki jagiagaitik, diploma edefa es]curatu eban. 1921'gko irallaren 4'an, Euskaltzaindiak euzkel jayak atondu ebazan Durango'n, Astarloa'ren omenez; olerki-sarikelan, Astarloa jasoaz egiñiko olerkiaren bitartez Kepa'k beragandu eban ango saria. *Gure Herria'k* be, 1924'an, oi danezko norgeyagoka eratu eban, eta gañontzeko gai askoren artean, olerkizkoa be bai, *Poesies nacionales* eritxona. Sail ontako len-saria, ots, makil txukuna, Enbeita'k beretu eban, onorezko aipamenaz Sagartzazu'tar Kauldi, Garbizu'tar Jon, Juan Ezenafo ta Manuel Afegi gelditurik.

Omenaldiak

Igaro gizaldi-erdiari aurrez aurre begiratu ezkeru, ba-dogu bertsolari bat amaika biotzi zirkin eragiña. Kepa'k nun itz egin, araxe jentia. Ta nolako esku-zarta beroak! Zezenlari antzo safi atera eben lepo-gain be; ainbesteko barren-su ta ifika esnarazten eben aren bertso ta ahapaldi aberkoyak. Egia esateko, Goikuak ofela nai izanik, igafi бага makaldu egin zan Ufexindofaren eztafia, ta Biaizteri'ra (Laguardia) juana gen-

Pizkat osatu ta andik etofi zanean, 1922'gko urrillaren 1'an, omenaldi edefa egin yakon Eibar'en. Ufexindofa, baña, apala yakun, zokondo ixil zalia; ez eban atsegin edu ortako jairik. Zera diñosku berak: "Sarritan juan ixan naz Jel-batzafetara bixi-bixi, baña Eibar'en eztaikit zelan egongo nazan; neu juan barik egitekua ba'Htz..., pozit geratuko nintzake neu ez ikusteko lekuan. Nik eztot ein besterik geure Jel-aJdezko jayetana al neban eran abestu baño; onegaz neure biarkuna bete baño bestedk eztot egin; gañera, nik bakafik eztot abestu, nik lez beste askok be abestu dabe . . . Ni basefiko txiro ezjakin oni aintzalben jaya egitia, gogoratzia be naikua egin yake Jeltzale-Gastedikuai! Onezkero ezin ukatu neyoe neure baimena, eta bijotz-bijotzez eskartuten dautset dausten maitasun aberkoya, eta aintzalben orren duin ez nazan afen, Jaungoikuak Olan erabagi ba'dau, Berari opalduko dautsot gustija, neure ta abertzale gustijen ixenian, Euzkadi onetsi dagiantzat." Kirikiño'k, bafiz, onela adoretzen dau; "Ez estutu, Enbeita; etofi Eibar'era zeure lagun maitien artera, bafua nasai-nasai dozula; gogoratu egixu oftarako Eibar'ko aintzalbena zeuretzako ixanaz batera, baita ba dala enparau Jel-oleskari gustijentzat, geure ele maite-maite euzkareantzat, euzkel-efiarentzat, geure lagun Jeltzale gustijentzat, eta Jel'entzat. Zeure bidez Euzkadi geure aberrija aintzaltzen dogu jeltzaliok."

Enbeita zaliak millaka millaka batu zirean Eibar'en Euzkadi guztitik, *Astelena* pelota lekuan zan jaya. Lenen pelota jokua. Egileor ta Okariz, efenderitafak, Zinkunegi ta Orozko bilbotafen aurka; ezpata-dantzari ta banda-soñu ugari; meza edefa, Krutzeta aretoan bazkaria; ondoren, ordu bi ta erdietan bertsolarien txapelketa azkena, ta lauretan mitiña Astelena'n, Sota ta Aburto Ramon, Pantaleon R. Olano, Ufeta'tar Mikel ta Arantzadi'tar Imanol izlari ziralarik.

Gusti au Kepa Enbeita'ren govatzafez zan. Berak ez eban, kantuz beintzat, egun aretan tautik atera, geixovik bai egoan ondiño. Alan eta guzti be, bere anai Imanol'ek —bertsolari bikaña au be—, Kepa'ren izenian, Kepa'ri ta Eibar'ko efi osuari zuzendu eutsozan neurtitz-sail ezin-obsak. Ona areitako bat:

Biotza daukat gora-goraka,
 Berantz ezin da erori:
 Nere bafuan zer gertalzen dan
 Zelan azaldu iñori?
 Eibar'ko batzar aberkoi onek
 Sortzen daustena da ori.
 Eskar aundijak emon biafez
 Aurkituten naz zeubori,
 Nere anaya Kepa goraltzen
 Etori zaren danori.

esnetan, urengo egunean: Asi abade ta alkate ta azkenerañoko biztanle-
raño, danak efeztasunak emon dauskuez, anayak lez artu gaitue; ofe-
gaitik urten giñan andik, danok, eibartafai eskefak egiten." Eta Enbei-
ta'k: "Eskerrikasko, eta neure zorun-opazko besarka maitekofa euzko-
abertzale gustiei, ta batez be igandian Eibar'en ixan ziñienai eta idazkiz,
ufutidatziz eta abar ni duin-ez onegaz gomutau ziñienai. Jai baketsu,jai
aberkoi,jai edefik edefen arek batetik lotsa-lotsaz ta bestetik poz-pozez
jarten nenduen; nire opaz zala entzutiak lotsatu, eta abefi-aldez zak
jakitiak poztu" (*Euzkadi*, 1922-X-7'an).

Ufengo urtean be, 1923'gko jofalaren l'an, Kristo'ren Berbizkundez,
abertzale-jai andia ospatu zan Bilbao'n. Geyen bat Enbeita'ren omenez
au be. Meza, itzaldi, bazkari ta abar oso edorto. Kirikiño'k onela: "Eus-
kfil(iuna/c erleuntza urudijan; an zan izkitotsa ta burrundadial" Arana'tar
Joseba Iñaki gernikafia, Arturo Kampion ta Irujo iruñafak izan ziran itz
egin ebenak, Efenteria'tar Gorgoni tarteko ebela. Itzaldi aufetik, bi-
tartean eta ostein Enbeita'k kanta. Kirikiño'k darai: "Enbeita abeska asi
zania ikaratu giñan danok bere abots zolija entzunaz ta bere beso-
eragite ta bere begi bixijak ikustijaz. Eibar'ko Enbeita ikusi ta igandian
emen ikusi, gaba ta eguna ikustia lez . . . Sekulako oleskiak bota zituan;
sakon, aberkoi ta edefak. Laburditafak berari begira-begira, betazalai
erain bat ez eutsien eragin, eta oleski baktxaren azkenian eskuek apuxtu
biafez txalotzen eben." Ordukoa dau ahapaldi zoragarri au:

Maitasunezko indaiak nau gaur
 Toki ontara ekafi,
 Anai-be,sarka bat emotera
 Bilbo'n batu zarenori.
 Au batzar eder agurgarria,
 Abefiaren pozgafil
 Batzar onixi deritxot euzko
 Batasunan zimentari.
 Ondo etoi'i, anai maiteak,
 Neure besarka danori.
 Sabin-gogua geukin dogula
 Danok bat eginda jafi,
 Utzirik uskeriak,
 Lagun egiñik alkafi,
 Illarteraño aldeztuteko
 Jaun Goikua ta Euzkadi.

Geroago be izan ebazan antzeko gozatzafe bafenkoyak.

Gaztetan osasuntsu izan zan gure Urretxindorra; baña, uTteak joan urteak etofi gizon egiña zala gofiak ikusia dogu geixoaren erpape. 1919'an, Bere anai Ibon Ameriketatik etofi zan. Gaban andia ekafen jantzita. Ta, adei-zurrean edo, goiz baten Kepa'ri esan ei eutson: "Euret-zako be ona ixango dok au; jantzi egik." Geroztik auxe esan oi eben. Imanol bere anaia etofi zan untzian geixo asko etozala, ta gaban axe jantziaz geixotu zala gure Kepa. Dana dala, afezkero, egunik asko egin ebazan ogean,jagi barik. Orduan, osagilleak aginduta, Marti-inguruan Biaizteri edo Laguardia'ra juaan zan osasun-bila: ilabete batzuk an egiñik, udan etxera itzuli zan, bafiro be udazkenean ara juaan ta Gabonetan etxera etorteko. Olan, iru-lau bat urtean, urte-aldirik geyena Laguardia'n egin eban. Geroago be, ango aizeak ongafi yakozala-ta, ara juaan oi zan safi. Zemendiaren 26'n au idazten eban andik:

"Ator gixon artera"
Txepetx jaunak cliño.
Baña zelan jungo nok?
Luma zafak jun ziran
Ez dakit noraño.
Barririk etxakustak
Banaka bat baño . . .
Ni gixarterako ona
Nayagok ondiio!

Alan be obetuaz joyan. Zera Kirikiño'k: "Enbeita Kepa maitiak diñosku obetotxo bai-dagola, baña ondiño belauak ikara egiten dautsoela; irabazijaz duala, baña oso astiro. Egon ortxe, geldi, luzaruan, Kepa; ez urten s&ndotu arte. Jainkuak osasuna emon daixula, zeu ta zeure sendi-jaren onerako, ta abertzale gustijon pozerako." 1921. gko epallaren azken-neruntz be an aurkitzen zan, ta erdi-geixorik ondiñokarren. Baña jazokun eder bat gertatu zan Urkiola'n, eta Biaizteri itxirik, ara egaztu yakun gure Txindofa: bere anai Imanol ezkondu zan. Urte orretan bertan, udabafi azkenean, bagillaren 19'an, onela idazten eutson Kirikiño'ri: "Agur, neure adizkide on roaitia: Araba'ko baztar onetatik bialtzen dautzut idaztitxu au, Oyartzun'en batuko zaren gure anai euzkel-idazleei,rure ixenian, anai-besarka maitekofa emon dagioezuntzat." Izan be, Oyartzun'en ospatu zan euzkel idazleen batzafa; an ziran Labayen, Mañariko, Antxubero, Ufeta ta abar. Bagillaren 27'an etxeratu zan Kepa, ta Kirikiño'k alai: "Atzo afatsaldian estutu geuntson bostekua geure aizkide maite Enbeita'tar Kepa olerkari ta oleskari andijari. .. Antz edefa dauko; len baño betiago dauko arpegia, azal-miargua be ona; ta geuk eretxi

dautsogu begitarte argija." Maiteak laztanaren osasuna ta askai itxuratsua nai.

—Iñoiz entzun yoat, Enbeita makal ebillelako, bere alde olango arpi-detza edo diru-batzea be egin ebela.

—Eta ez baten bakarrik, iru edo lau aldiz be bai. Lenengo Ameriketako abertzaliak, bera bizi zan etxia erosi (Enbeitafak Usparitxa'n maizter baitira) ta berari emoteko asmuz,diru-pilloa zuzendu eben; baserri-jau-biak, baña, ez eban etxanuntza saldu nai izan. Geroagogafenean, geixotu ta lanerako gauza ez, ta etenbarik bertsoz ta itzaldiz abefi-zear ibilli bear, diru-batze bat osotu zan abertzalien artian. 1923'gko zezellaren 22'an, Kirikiño'k; "Enbeita, osasunaz aspaldijetan egon ez afen, abertzalieki ñora deituten eutsoenian, apal-apal da bape atxaki barik juaten zan, eta bere oleski ta itzaldijekaz euzkeldun abertzaleei (baita erdel-dunei be) poz andija emoten eutsen, eta Jel-azija oparo erein eta zabaldu-te-eban. Gixajua,urteko igande ta jayegun geyenatan bere etxetik kanpora ixaten zan, aberrijaren aldezko lanetan ezetzik emoten ez ekijalako. Jel-Batza'ko agintarijen esanera beti gertu ara edo ona juateko: Lan andi oftatik berak ez eukan irabazterik, lan oftatik ez eban etxeratzen bere sendijantzako laguntasunik. Ondiño txafago: lan aberkoi eder ortatik okefa etorkon Enbeita'ri, piperpote aldeko miña-jabe ta lantegi-jabiak (geyenak Bizkaya'n) "boikot" andija egin eutsoelako. Berak lanotzarak saltzen zituan leku gustiitan, piperpotiek guda gogofa egiten eutsoen, eta berezija galdu-azo. Gofiak daukoz ikusita Enbeita gixajuak onetan! Iraoko urte batzuetan osasunian jausi da ta naikua kili-kolo dabil. Ezta indafik otzaragiñan lan egiteko, zegaz bixi izan be eztauko, ta etxe-bete ume... ta olan aurkitzen dalarik, bertan bera lagako dogu Enbeita lako oleskarija, Enbeita lako abertzalia, Enbeita lako gixona? Ez, eztogu lagakol Bakotxak apurtxu bat ipiñi ezkeru, danor artian igafi barik zuzenduko dautsogu danok ainbeste maite dogun Enbeita'ri, berak biar daun beste bere gexuari aurre-emoteko ta bere ume-pillua aufera atara al ixateko. Ofegaitik gure Jelbatz-nausijek ontzat artu eben Enbeita'ren aldezko arpide (suskriziuro) bat emoteko asmua, ta Arpide-Batzorde bat ixentauta dago, ta beronek oftako arpide-ofijak egin ditu ta bialdu alde gustijetara, U. B. B. ta Jel-batzokietara, ofi ofeetan bakotxak zenbat emongo daun iru-illebetero adirazo dagijan." Geroago be egin ziran antzeko diru-batzeak,Enbeita'ri laguntzeko.

1926'gko irallaren 19'an, igande illuntzean, zoritxar batek lau-ofitan jafi eban Usparitxa: Kepa'fen ama, gorenengo zurmaillan uts eginda, malarik malla, be-beraño jausi zan, gorputz gustia mallatuaz; eta jauskeran, ezkefeko eskuturra ausi ta eskumakoa be zauri-zauri egiñik geratu yakon. Baltza,benetan! Alan be garai onetan dakusgu amak noraño maite eban Kepa. Danak sayatu ziran noski amari arduraz laguntzen,baña Kepa'ren eskuak ba-eban alako gozotasun biguñia. Amak beti esan oi eban: "Gure

Pedro datofela, apur bat erain daistan; berak daki ondoen nundik eta zelan oratu biar daustan." Eta Kepa'k zirkintxu bat eragin ezkerero, len erostaka ba-eragoyon be, alai ta ifipartsu geratzen zan. Kepa'k,ostera, ao-gozo: "Ondo ipiñi zaitut,ama?" —"Bai,Pedro, zeruan ipiñi nok! ..." Andik egun batzuetara, irallaren 23'an, il zan santu antzean, 77 urte ebarlarik. Aita,bafiz, 1928'gko Urrillaren 8'an il zan, Tomas Urutxurtu apaizagandik azken-ikurtonak artuta.

—Zenbat seme-alaba izan ebezan?

—Zortzi. Gaur ezkondata bizi dira; Bizenta ta Efupin Sardui, 1931-XII-26'an, Urkiola'n ezkondu ziran; Balendin eta Kalare (Ealo) Ander Deunaren egunez, 1935'an, Urkiola'n; Edurne (Miren Edurne Arantzazu) ta Maxi Egileor, Muxika-Ariatza'n, 1942-IX-8'an; Imanol ta Eli Etxandia Urkiola'n, 1943-X-15'an; Sabin ta Boni Martitegi Urkiola'n, 1943-XI-27'an; Itziar ta Jazinto Zabala Urkiola'n, 1943-XI-27'an; Miren Begoña (Begoña'ko Miren paparelan) ta Kepa Ajuria Ariatza'n, 1944-I-15'an. Deunoro izenekoa iru urtegaz il zan. Baita Miren Begoña be Ariatza'n il zan, 38 urtegaz; emakume osoa, ainbat neke-min jasana, ainbat egun zurbil ta mingoztasun artua. Zoil Atxufa jaunaren eskuetatik artu ebazan azken-ikurtonak, txit zerukoi ta eraspentsu.

Urretxindorraren eriotza

Azken-guda aufetxuan, ots, 1936'gko garagarillaren 12'n, Laguardia'ra aldatu zan; ez ostera geixorik egoalako, amabosta igaroteko asmuz baño. Ta bertan zala gudea sortu. Au tarteko, antxe geratu zan, etxe ta senditik ufunduta, 1937.gafen atzeneraño. An, ia urtero egonaldiak egiten ebazalako, erabat ezaguna zan, eta adizkide askok agurtu ta maite eben; gefa sortu zanean, ofaitiño, Laguardia aldean euzkeldun legez gizarteko adeitasun ta agufak oro ukatu ei eutsoezan; berak, o.ostera, lenago lez txeratsu ta biotz-bsra danak agurturik, apurka-apurka, gaur batek biarbik, bafiro be agurtzen eta rraitekor begiratzen asi ei yakozan; eta azkenez, Don *Pedro* deitzeraño ekafi ei ebazan angoak, Aldikada aretan Biaizteri'n gertatu ziran apaiz Gelasi ta Nikasi Larrea'k, Kepa'ren seme-alabei esaten ei eutsoen: "Zuek ez dozue zeuon aita ezagutzen; basefi bateko ikasi-bako olako jakintsmuk ez dogu ikusi."

Etxetik alde egozan gustiei safi idazteko oitura eukon. Baita berak, kanpotik zanean, axolaz ta biotz-samur idatzi be. Idazkietan erakutsi daroagu nor garean; Kepa beti agiri yaku edozeñi bizia ta gafa erantsi nayejan; etzan aren seta asaferakoa, samur eztitu baizen.

Biaizteri'n egiñak ditu olerki eder batzuk. Errimiñak jota bizi zan

deritxonean gizonki dator su ofen miña:

Maite zaitudan jayotetxeoi,
Zugandik urbil bixi naz!
Ni besarkatu ez nadin, baña,
Or neure sendi laztanaz,
Ate zabal bat bitarte jarri
Dauste margorik baltzenaz. . .
Ezin ikusi, ezin laztandu!
Tamalez ilgo ete naz?

Zure baiirik ez dakart iñok.
Zeugana ezin neu juan!
Ene begiok negar-ituri,
Au gogoratu orduan!
Gure izparrok tinkorik daukez,
Ez ekarri, ez eruan . . .
Itsu eta gor ba'nengoke lez,
Emen bizi naz "linbuan" . . . !

—Noz itzuli zan etxera?

—Gera amaitzean. Eiihoa alde batetik itxi ta bihurtu zan, biotzez maite ebazan emazte ta seme-alabak barne-su biziz besarkaturik. Egia esan, oneitatik lau-bost espetxe ta gudari ziran, etxetik urrin; aita on arek, baña, ez eban iñortxorentzat txafik ez asafarik.

Laguardia'tik etxeratu ondoren, bere loba Bitoren eban lagun, au Uspitxa'n bizi bait-zan. Kimu bafia ekusan, eta kimu bafi lez zaintzen eban Kepa'k; ganera, oso Jainkozale genduan Kepa ta beronek gertatu eban lobatxua lenengo Jaunarlerako. Eta egun andi ofi yagokon jaiera ta ospez egiteko, traje bafia estrenau eban Kepa'k. Ofen zergaitikoa itandu eutsoenean, onela erantzun ei eban berak: "Gaur besteko egunik ete? Josu-Biotz-eguna ta lenengoko Jaunartzia doguz gaur."

—Garai ontako olerki ta bertsorik?

—Esatekorik ez. Miñetan egoan, antza, Txindofaren bafena, ta abes-teko giro egokirik ez. Ez dazaugu garai atako kantarik. Bafi gitxi edo bapez. Biaizteri'tik, olerkitxu batzuk, eskutitz batzuk, besterik ez. Etxera ostean be aintzat artzekorik ez eban idatzi: nonori zorionak eta olako batzuk, berak eskuz idatzita bialduak, bai; edo idazkiren batzuk itz-lauz, zein euzkeraz zein erderaz: besterik ez.

Naiz-ta adu txafaren erpape bizi, etzebillen buru-makur ta mutxin. Emazte ta seme-alabakanako maite-sua ba-eban, ausaz indartsu, bere biotz-zokoan. Seme-alabok ezkondata eukozan, eta Simeon zafaren antzera, *Nunc dimittis, Domine* abesteko eragozpen barik aurkitzen. zan. Oria emen il baño ille bi lenago Yufetik, bere alaba Edurne ezkondata egoan lekutik egiñiko kartan zer diñoskun: "Yurre'tik Urkiola'ra, 1942'gko Ufila 17. Goiria Inunzia'tar Benedite'ri. Ene biotzeko emazte on maite ori,

agur: Usparitxa-Jauregi'ko Txindor kumatxuarentzat,. . . Sebastiana an-dera on eta zintzuak eta bere seme Maxi gustioen begikoak,maitekiro gerturiko abijatxu txukun onetan irugafen eguna ondo be ondo ta pozez be pozez daruadalarik . . . gaur, larunbata gaberako J.1., txokotxura iuan-go naz. Emen, gure Edurne, poz-pozik bixi dala ikusten dot. Eta Edurne'gaz Olabafi'ko sendi gustija be pozik aurkitzen dala. Eta onek pozez gañezka ipinten dau nire biotza. Jaunak onetsi bedi sendi Jaungoikozko au. Eta zeu, zelan aurkitzen zara,ba,or zeure Urkiola zorioneko ofetan? Ondo? Baietz uste dot. Olantxerik gurako al dau,ba, gustioen Aita Goikuak. Ortik nasai-nasai, patxaraz, ezeren ardura barik ibilli zaitez,arima ta gorputz . . . sendo-sendo eginda biurtu zaitezen ama-suñok. Andoni Deunaren onespenak zeuekin dozuezararik, ofantza igaroteko aldija etofiko yakun bitartian . . . emen be zeuok ekafiriko Deun Andoni-usain gozotan bixi gaitezen. Entzun, Bedite: Atzo, Maxi, geure suin maitagarri onegaz, Afatija geyena arakatu dot. Zeanuri'ra be ixan giñan; an aizkide asko ikertu ta maitekiro alkar besarkato be bai. Emen, bafiz, zu ikusteko dagon gafamura noañoakoa dan etzenduke siñistu be egingo. Zure lengo senide zafak be emen daukozuz,Leonor,eta abar eta abar. Olabafikuak, barriz, zetan esan bez,a;laba, suin,Sebastiana eta enparau,sendi kistar-eredu aunek zu emen ikustiaz poz andija artuko dabela. Kisto Bakaldun Gurena'ren bezpera gaberako itxaroten zaituez, ba: eta, orduxerarte, neuk be agurtzen zaitut. Ufepin geuriari, gorantzi andiikak eta zeuk artu egixu egiz maite zaituan zeure senar onen biotza." Zelako biotz ederra Urrezkoa darakusgu,nunbait,eskutiz maitekor onetan.

—Noz itzali yakun?

—Ondo gazte zan ondiño; baña Goiko Jaun onak, umotua idoro,antza, ta betiko atsedeen diztikofera aldatu auskun, gitxien uste genduanean. Goiz baten ondo-ezak jota ogeraturik, osalariak konturatu orduko lan andijak egin ebazan geixuak aren gorputz aulean. Bilbora eruan eben, Guimon jaunaren gexotetxera, baña berandu zan orduko. Guimon'ek, ikusi-alan, Kepa'ren alabai onela; "Zuen aita gaizki dago, oso gaizki; Eleizakuak eginda ezpa-dago, ibili arin." Egin-egiñpan be, bere adizkide begiko Agustin Isusi apaiza an aurkitzen zan; eta,bien begiak poz-ñirñir, lagun min onek emon eutsozan azken-sakramentuak. Ondpren, etxera ekafi eben ilteko. Eta, naigabe aundiak izan afen, gizon areri ezin eikeon igafi gexorik ba'egoan be. Etxian egin ebazan egunetan, efi osoa ta ufiñeko jakitun ziran adizkide ta ez adizkide gustiak, uureundik gora ikertu eben. Danentzat eukan aolkuren bat, danentzat zer-esanen bat. Bere emazteari maitasun bizia erakutsi eutson batez be azken-gexoaldian: "—Bedite, ene maite —iñotson—, damutu zara iñoz nigaz ezkontziaz?" "—Ez, senarra." "Ezta neu be! Jafaitu zuk Jainko-bidetik." Eta bere seme Sabin'en ezkongei orduan zan Boni'ri: "—Zu ixango zara etxe onetan sartuko zarian andria; emen oitura onak izan dira beti,ta auferantzian

oe *ba-dakit zuk* olantze zamauKo dozuna. Eta lagun zar bati: «Gauza andijak ikusteko biarran ekin dauzagu; baña orain ni ba-noa zerura; zuekbiar bada ikik dozuez." 1942'gk bnduaren 12'n il zan gure

gozoz.

—Eta lur emotean?

—Laguntza andija. Naita egun illunez ta ilbarria ezagun ta adizkide guztietarafio eldu ez, aldra galanta izan zan aren il-ondarrai Muxika'ko efi-iltegriraño lagundu eutsoenak. Gogora emen Lizardi:

Biotzean min dut, min etsia,
negar ixilla darion miiaa ...

Euzkel abeslaririk bikañena gau etengean sartu. Ainbat kanta aberkoi jaulkitako eztafia ixillera betiko. Ezta afitzekoa "begioi malko ixill ba'darie dardarka".

Usparitxa'tik, ufin, Elizalde'tik ur-ur, aldatz-goran, or Muxika'ko illerria, ortu santua. "Zuek orain zariena len izan giñan gu, eta laster zarie gu orain garena" adierazten dausku illobi apal arek. Eta tartian, beste edozein legez, antxe datza Euzkadi'ko Ufetxindofa izan zana. Lau oñeko zuloa, lurra gain, bedar batzuk,autsa. Bizi zalarik, alde gustietan, benetako kristautasun bizia erakutsi bai eban: Kristo'ren Gurutzia ezaUgafi.

Zer geyako? Gain bere olerki samur, *Gokaxuaren cleya* deritzona, aridardar, intziriz:

Ene adizkidiok,
Otoi egin nigaiti,
Oben-zoia Jainkuak
Dagiguntzat azketsi.

Oarkizunak

Bilduma au zelan egiña dan. — Irureun ta ogeta amazortzi poesiko bilduma azi au osotzean, nundik nora ibilli garean jakin-miñez zaukadaz ziur asko,irakurle, ta berezko iski ori asetu nai deutzut,

Gure Enbeita'k, garai aretako aldizkari ta egunerokoetan, euzkel-atalen bat ebenetan beintzat, idatzi eban;batez be "Euzkadi"-n "Ibaizabal"-en, "Aberri"-n eta "Euzkerea"n. Ba-ziran beste antzeko batzuk be. Oneitatiek jaso doguz ia geienak. Gero, ondiño be etxean daukiezan aren esku-idatzi ta paper zafak arakatu doguz, onela egiñik olerki-txorta eder au.

Dan-danak ete dagoz bilduma ontan? Baietz ezin esan. Oso ugaria genduanez, erbesteko aldizkarietan, batez be Ameriketakoetan agertzen ziran iñoizka aren lanak. Oneik guztiok ete dagoz bilduma onetan?

Billa ibilli aren ez dot aurkitu diploma batez saritua izan eban bat. Etxekoak diñoenez, gelako orman esegita eukon guda aufetik sari-oroi-galu ori, Baztan'go uyolari egin eutsonagaitik lortua aurki. Alak al, ez dot eskuratu olerkitxo ori; lofatza bai, ostera. Ona zer diñon "Euskal-Esna-lea"-k (1914, garagarrilla), 147 gn. ofialdean:

"Izneurti-batzaldia.

Abadie jaunak asi zituan euskal jaiak aufera eramateko izendatua dagon batzafeak, agertu erazi ditu amtengo izneurtuen batzaldkako gogoan eduki bear diran arauak.

Ona emen:

1. 1914'ko batzaldia Iholdi-urian egingo da, uri artako zaindari-jaiak izango egunetan.

2. Izneurtuen gaia au izango da: *1913'ko ufolak Euskalerian (Baztan eta Nive-ibarretan)*.

3. Izneurtu oek bidalduko dira Batzafaren etxera (*Bayonne, rue Bourgneuf, 69*), datofen dagonillaren 15 baño lenago.

4. Irurogei lefor-gora eztituzte izan bear izneurtuak."

Ontatik auxe atera daikegu: 1) Iholdi'n olerti-sariketa; 2) gaia: 1913'ko uyolak; 3) olerki txikia. Berton Enbeita saritua, sari ofen ezau-gafia —oso panpox— etxean eukan da. Mugaz onunzko aldizkarietan etzan argitara emon olerki ori. "Eskualdunak" bear bada?

Ikuturik? — Irar-uts agirikoen batzuk zuzentzeko bai, bestelan ez. Berak idatzi ebazan lez doaz. Iñoiz argita'atuta bestera aeertu afen, berak era batera idazten eban beti: "Euzkadi"-ren euzkel-ataleko zuzendariak, Kirikiño'k eta Orixe'k batez be, ofazketaren batzuk egin eutsoezan, euzkel orde euskel, *maitiaren* orde maitea ta olanguak. Guk beraren idazkeran itxi doguz danak.

Doñuak. — Eraskin antzera doazan kanta-doñuak, Kepa'k auf ezean erabilli oi ebazanak dira: batzuk jatorrak, bere-bereak; beste batzuk euzkel-kanta zafetatik arturiko doñuak ditugu, osoan edo zerbait aldatuta, Xenpelar'ek eta egiten ebenez.

Guda aurretik, Aita Gotzon karmeldafak, Kepa'k berak kanta-ala jaso ta, zortzi-amar bat doñu, beintzat, *Karmengo Argia'n* eta *Ekin* en argitaldu ebazan. Gaiñerakoak, Aita Daniel Garmendia Karmeldarrak, Balendin Enbeita Kepa'ren semeak abesturik, artu ta atonduak dira.

Ia bertso-mueta gustiak dabe euren kanta-doñua. 32 gustiz.

Aita Onaindia